

ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ORDENANTZA

Aplikazio eremua

1. art. 1. Ordenantza hau, Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bideko Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duen martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegileak xedatutakoaren osagarri da, eta herriko bide publiko guzietan aplikatzen ahalko da.

2. Udalak osoko bilkuran onetsiko du trafikoaren antolamendua eta haren seinaleztapena herrian.

Seinaleztapena

2. art. 1. Manuzko seinaleztapena ezarriko da bereziki, udalerriko bide-sarearen tarte konkretu batzuetan, edo orokorrean, herri osoan, azken kasu honetan seinaleak herriko sarrera guztietan paratuko direlarik.

2. Zirkulazio murriztuko eremuaren sarreran diren seinaleek, oro har, zona horietako perimetro osoan dute indarra.

3. Udaltzainen edo trafikoaren ardura dutenen seinaleek beste edozein seinale baino indar haundiagoa izanen dute.

3. art. 1. Ezin da seinale manuzkorik ez informatiborik paratu alde aurretik udal-baimenik izan gabe.

2. Paratzen ahalko diren seinale informatibo bakarrak, udal agintaritzaren iritzian, benetako interes orokorra dutenak dira.

3. Debekatuta dago seinaleen gainean edo alboetan publizitatea paratzea.

4. Debekatuta dago erabiltzaileei semaforoak edo seinaleak behar bezala ikustea oztopatu edo haien arreta galaraz dezaketen panfleto, kartel, iragarki edo nolanhiko mezuak paratzea.

4. art. Udalak, behar bezala baimendu gabe edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten seinaleak, berehala erretiratuko ditu.

Udaltzainen edo trafikoaren ardura dutenen ekintza bereziak

5. art. 1. Udaltzainek edo trafikoaren ardura dutenek, segurtasuna eta ordena publikoa zaindu beharrez, edota zirkulazioaren arintasuna bermatu ahal izateko, batzuetan aldatzen ahalko dute zenbait lekutako antolamendua, leku horietan pertsona edo ibilgailuen kontzentrazio handiak suertatzen direnean, eta orobat larrialdiren bat gertatzen denean. Horretarako, behin- behinekoz jartzen edo kentzen ahalko dira behar diren seinaleak, bai eta prebentzio-neurriak hartu ere.

Oztopoak bide publikoan

6. art. 1. Debekaturik dago oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa eragotz dezakeen edozein oztopo edo gauza bide publikoan paratzea.

2. Aurrekoa hala izanik ere, behar bezala justifikatutako arrazoiak direnean, baimentzen ahalko da bide publikoa aldi baterako okupatzea zenbait lekutan, baldin okupazioak inolako arriskurik sortzen ez badu eta, trafikoari begira, ahal den nahasmendurik ttikiena gertatzen bada.

7. art. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragoz dezakeen edozein oztopok behar bezala seinaleztaturik egon beharko du.

8. art. 1. Udal agintaritzak oztopoak erretiratzeko ahalko ditu ondoko kasu hauetan:

a) Bide-erabiltzaileendako arriskutsuak badira.

b) Behar den baimenik erdietsi ez bada.

c) Oztopoak zuen justifikazioa galdu bada.

d) Baimendutako epea akitu bada edo baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

2. Oztopoak erretiratzeko, bai eta haiendako seinale bereziak paratzeagatik ere, sortutako gastuak interesatuaren kontu izanen dira.

O i n e z k o a k

9. art. 1. Oinezkoek espaloitik zirkulatu behar dute, ahal delarik euren eskuineko aldetik. Bide publikoak espaloirik ez badu, oinezkoak galtzadaren ezkerretik joanen dira.

Aparkamendua

10. art. Ibilgailuak aparkatzeko arau hauek begiratu behar dira:

1.-Ibilgailuak ilaran aparka daitezke, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hots, espaloiarekiko perpendikularrean eta erdibaterian, zeharka.

2.-Aparkatzeko modua zehazten duen seinalerik ez bada, ilaran aparkatu behar da.

3.-Zoladuran seinaleztaturik, aparkamendutako moldatutako lekuetan, ibilgailuak seinalatutako perimetroaren barnean utziko dira.

4.-Ibilgailuak aparkatzean, espaloitik ahal den hurbilena jarriko dira, baina tartetxo bat utziz, galtzadaren zati hori ere garbitu ahal izateko.

5.-Nolanahi ere, gidariak beren ibilgailuak aparkatu beharko dituzte berez ez abiatzeko moduan.

11. art. Guztiz debekatua dago baldintza hauetan aparkatzea:

1.-Behar den seinalez debekaturik dagoenean.

2.-Zirkulazioa tratatzen edo oztopatzen den tokietan.

3.-Beste gidariak erregelamenduaren aurkako maniobrak egitera behartzen direnean.

- 4.-Bigarren lerroan, lehenbiziko lerroan ibilgailua nahiz edukiontzia dagoenean, baita beste objekturen bat edo babeseko beste elementuren bat dagoenean ere.
 - 5.-Aparkatzeko lekua ez den galtzadako beste edozein tokitan.
 - 6.-Norabide bakarreko karriketan, galtzadaren zabaleraetik ibilgailu-lerro bat pasatzea ezinezkoa egiten denean.
 - 7.-Norabide biko karriketan, galtzadaren zabaleraetik bi ibilgailu-lerro pasatzea ezinezkoa denean.
 - 8.-Kale-kantoietan, beste ibilgailuren bati biratzea eragozten edo tratatzen zaionean.
 - 9.-Erregelamenduaren arabera aparkatutako beste ibilgailuei aterabidea oztopatzen zaienean.
 - 10.-Oinezkoen pasabide diren galtzada-tokietan.
 - 11.-Espaloietan, kaietan, babestokietan, erdiko nahiz alboetako pasealekuetan eta zolan zerrendaz margotutako eremu seinaleztatueta, okupazioa osoa izan nahiz zati batean izan.
 - 12.-Kaien, babestokien, erdiko edo alboetako pasealekuen eta zolako zerrendaz seinaleztatutako lekuen ondoan.
 - 13.-Garraio publiko, eskola-garraio, taxi, zamalan, ibi eta, oro har, erreserbako leku izateko seinaleztatu eta mugatutako geralekuetan.
 - 14.-Toki berean zortzi egun edo gehiago jarraian.
 - 15.-Aldi batez iharduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan, eta konpondu, seinaleztatu edo garbitu behar diren tokietan. Kasu horietan debekua behar bezala eta nahikoa garaiz seinaleztaturik egonen da.
12. art. Gehienez ere bi ibilgailu-lerro eduki eta zirkulazioa norabide bakarrekoa duten kaleetan, ibilgailuak kalearen alde batean bakarrik aparkatuko dira, udal agintaritzak zehaztutako aldean.
13. art. 11. artikulua 14. atalean xedatutakoa ez betetzeagatik, antolamendu edo norabide nahiz seinaleztapen aldaketaren batengatik, eta orobat obrak edo beste edozein aldaketa egin behar delako, ibilgailu bat aparkatua dagoen tokitik udal altxatokira edo, horren ordez, baimendutako beste edozein aparkalekutara eraman beharra gertatuz gero, gidaria izanen da arau-hauste horren erantzule.
14. art. Ordu-tegi murriztua duten aparkalekuetan, beti ere ordutegi librekoekin tartekatuko direnak, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- 1.-Aparkatzeko momentuan ordutegiaren txartela paratu beharko da. Txartel horrek Udal Administrazioak zehaztutako neurri eta ezaugarriak izanen ditu.
 - 2.-Ibilgailuaren gidariak parabisaren barneko aldean paratu beharko du txartela, kanpotik begibistan gelditzeko moduan.
15. art. Hauek dira aparkaleku mota honen kontrako arau-haustek:

- 1.-Ordutegiaren txartela ez paratzea.
- 2.-Txartel aldatuak edo erabil ez daitezkeenak paratzea.
- 3.-Txartelean azaldutako denbora baino gehiago egotea.

16. art. Ordenantza honen artikuluetan ezarritakoa gorabehera, ordutegiaren frogatze lanetan Udaleko langileak ere aritzen ahalko dira. Hori horrela izanik ere, aparkalekuen inguruan langile hauek egoteak ez du ekarriko, halabeharrez, han dauden autoak zaindu eta gorde beharra.

17. art. 1. Ezindu fisikoendako erreserbatutako lekuetan aparkatzeko udal-baimena duten titularrek, denbora mugarik gabe aparkatzen ahalko dituzte beren ibilgailuak, bai haiendako tokietan, bai eta denbora mugatuko aparkalekuetan ere.

2. Aipatu gidari horien helmugatik hurbil ezindu fisikoak aparkatzeko leku erreserbatuak ez balitz, udaltzainek baimena eman lezake zirkulazioari trazarik ttikiena egiten zaion lekuetan aparkatzeko, baina inoiz ere ez aparkatzeko debekuak, ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera, ibilgailua erretiratzea eskatzen duen lekuetan.

Ibilgailuak bide publikotik eramatea.

18. art. Udaltzainek edo trafikoaren ardura dutenek, halaxe egin behar duenak egiten ez badu, ibilgailuak bide publikotik erretiratzen ahalko dituzte honako kasu hauetan:

1.-Arriskutsua denean edo traba larria egiten baldin bazaio zirkulazioari nahiz zerbitzu publiko baten funtzionamenduari, eta orobat ibilgailu hori bide publikoan abandonatua dagoela uste daitekeenean.

2.-Istripuren bat izan eta joan ezinik gelditzen denean.

3.-Ibilgailua bera hondatu delako, ibili ezinik gelditzen bada.

4.-Martxoaren 2ko 339/1990 E.D.L.aren 67.1 artikulua hirugarren lerroaldeak xedatzen duenari jarraikiz, ibilgailua geldiarazi ondotik, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu nahi ez duenean edo hura ordaintzeko bermerik eman nahi ez duenean.

19. art. Beste kasu batzuk aipatzeagatik, baina zerrenda mugatzeko asmorik gabe, ondorengo egoerak martxoaren 2ko 339/1990 Errege Lege-Dekretuaren 71. artikulua 1. a) atalean sartutzat balira bezala hartuko dira, eta, beraz, bidezko izanen da ibilgailua erretiratzea.

1.-Ibilgailua bigarren lerroan eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.

2.-Beste gidariei maniobra gehiegi, arriskutsu eta erregelamenduaren kontrakoak eginarazten dizkienean.

3.-Seinalatutako orduen barnean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.

4.-Zamalanetarako tokietan aparkatuta dagoenean, haiek erabiltzen diren orduetan.

5.-Garraio publikoko geltoki seinalizatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.

- 6.-Premiazko edo segurtasun zerbitzuetarako propio erreserbatutako tokietan aparkatuta dagoenean.
 - 7.-Ikuskizun publikoetako lokalek larrialdietarako dituzten aterabideen aitzinean, emanaldietako orduetan aparkatuta dagoenean.
 - 8.-Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasealeku, arretaz ibiltzeko gune edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan, osorik nahiz zati baten gainean aparkatuta dagoenean, baimenik izan gabe.
 - 9.-Bidean doazen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.
 - 10.-Oinezkoen pasabide seinalizatu batean aparkatuta dagoenean.
 - 11.-Gelditzea galarazita dagoen tokiren batean aparkatuta badago.
 - 12.-Bihurgunea hartzea eragotzi edo hura hartzeko maniobra bereziak egitera behartzen duenean.
 - 13.-Beste bide batetik datozen gidariei hartzen duten bidea ikustea galarazten dienean.
 - 14.-Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.
 - 15.-Alkatetzak bando baten bidez arreta handiz ibili beharreko bidetzat edo antzeko beste izen batez kalifikatutako toki debekatuetan aparkatuta dagoenean.
 - 16.-Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.
 - 17.-Oinezkoendako kale batean baimendutako orduetatik kanpo aparkatuta dagoenean, espreski baimendutako aparkalekuetan izan ezik.
 - 18.-Ezinduendako aparkaleku erreserbatuan aparkatuta dagoenean.
 - 19.-Aparkatoki arautuetan ordu eta erdi bat baino gehiago ematen duenean, horrelako aparkaleku bateko arauak hausteagatik denuntzia jartzen den unetik aurrera kontatuta.
 - 20.-Beti ere, eta aurreko kasuetan bezala, arriskurik edo zirkulazioarentzat zein zerbitzu publiko baten funtzionamenduarentzat eragozpen haundirik sortzen baldin badu.
20. art. Udaltzainek, halaber, bide publikotik ibilgailuak erretiratzen ahal dituzte kasu hauetan:
- 1.-Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat burutzeko erreserbatu den toki batean aparkatuta baldin badaude.
 - 2.-Bide publikoa garbitu, konpondu edo seinaleak paratu ahal izateko ibilgailua erretiratu beharra dagoenean.
 - 3.-Larrialdietan.
- Inguruabar hauen abisua, kasuaren arabera, lehenbailehen egin beharko da, eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanez dira ibilgailuak, gidariei jakinarazita. Eramate horrek ez du inolako ordainketarik sortaraziko, ibilgailua edonora eramanda ere.

21. art. Aurreikusitako salbuespenak galarazi gabe, ibilgailua erretiratzeagatik eta Udal Altxatokian edukitzeagatik sortutako gastuak titularraren kontura izanen dira, eta hark ordaindu beharko ditu edo ordainketa ziurtatuko du ibilgailua berreskuratzeko baldintza gisa, bidezko diren helegiteak jartzeko eskubidea baztertzeke.

22. art. Ibilgailua erretiratzea bertan behera utziko da baldin eta gidaria agertzen bada ibilgailua estekatu eta garabia abiatzen hasi baino lehen eta behar diren neurriak hartzen baditu kotxea egoera okerretik ateratzeko.

Ibilgailu abandonatuak

23. art. Ibilgailu bat abandonatutzat har daiteke ondoko inguruabar bat suertatzen denean:

1.-Bideko toki berean hamabost egun baino gehiago aparkatuta baldin badago.

2.-Halako hondaketak baditu, non abandonatua dagoela antzeman baitaiteke.

24. art. 1. Abandonatutako ibilgailuak erretiratu eta Udal Altxatokira eramanen dituzte. Berehalaxe titularra nor den zehazteko izapideak egiten hasiko dira eta jakinarazpenetik hilabeteko epearen barnean ibilgailua erretira dezala aginduko diote.

2. Ibilgailua eraman eta edukitzeagatik sortutako eskubideak titularraren bizkar izanen dira.

3. Jabeak ibilgailua erretiratzeari uko eginen balio, Udalak ibilgailua besterentzeari ekingo lioke sortutako gastuak ordaintzeko.

Neurri bereziak

25. art. Inguruabar bereziek hala eskatzen dutenean trafikoa antolatzeke behar diren neurriak hartzen ahal dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatuz nahiz murriztuz, edo hiriko alderdi bateko sarrerek beste leku batera desbideratuz, bai eta aparkalekuak berrantolatuz ere.

26. art. Herriko alderdi bateko ezaugarri bereziak kontutan hartuz, Udal Administrazioak bere esku izanen du ibilgailuen zirkulazioa nahiz aparkaldiak erabat edo zati batean debekatzea, edo biak batera, aipatu alderdiaren barneko bide publiko guztiak edo batzuk erreserbatu ahal izateko, bertan bizi direnek edo, oro har, oinezkoek erabil ditzaten. Neurri berak hartzen ahal dira beste kasu batzuetarako ere.

27. art. Kasu horietan, kaleok behar den seinaleztapena beharko dute sarreran eta irteeran, alderdi horretan ibilgailuen zirkulazioa eragozten duten beste elementu mugikor nahiz finkoak erabiltzeko aukera kendu gabe.

28. art. Aipatu murriztapenak:

1.-Beren esparruan dauden bide guztietarako edo bakarrik haietako batzuetarako izaten ahal dira.

2.-Aurrez ezarritako ordutegi batera mugatzen ahal dira.

3.-Eguneroko edo bakarrik egun batzuetarako izan daitezke.

29. art. Xedatutako debekuen izaera eta hedapena edozein direla ere, ez dute eraginik izanen ibilgailu batzuen zirkulazioan ez eta aparkaldietan ere. Hauek dira salbuetsiak:

1.-Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzukoak, Polizia eta Udaltzaingoarenak, anbulantziak, eta oro har, zerbitzu publikoak emateko beharrezko direnak.

2.-Inguruko eraikin batetik eriak nahiz ezinduak garraiatzen dituztenak.

3.-Inguruko ostalaritzako establezimenduetara bidaiariak garraiatzen dituztenak, sartzeko nahiz irteteko.

4.-Hor berean garaje edo aparkaleku publiko nahiz pribatu baimenduetako erabiltzaile direnenak.

5.-Merkataritzako gaien zamalanetarako baimendutakoak.

Garraio publikoaren geralekuak

30. art. 1. Udal Administrazioak zehaztuko du taxien eta garraio publiko nahiz eskolakoaren geralekuak non izanen diren.

2. Haietan bidaiariak igotzeko edo jaisteko behar duten denbora baino gehiago ez daitezke geratu, salbu eta lineako abiapuntu edo helmuga badira.

3. Taxiendako geralekuetan, ibilgailu horiek bidaiarien esperoan daudela bakarrik gelditu ahal izanen dira.

4. Geralekuan pausa daitezkeenak baino ibilgailu gehiago ez dira han inola ere geratuko.

Z a m a l a n a k

31. art. Merkataritzako gaien zamalanak horretarako jarritako tokietan bakarrik egin ahalko dira.

E d u k i n o n t z i a k

32. art. 1. Altzariak edo etxeko tresnak, eta berebat obra eta etxeko hondakinak biltzeko edukinontziak, udal organo eskudunak erabakita, bide publikoko puntu jakin batzuetan paratu beharko dira.

2. Horretarako egokituriko tokietan ezin izanen da, inolaz ere, aparkatu.

Abiadura murriztapena oinezkoen etorri handiko lekuetan

33. art. Errei bakar batetik zirkulatzen den kaleetan eta oinezkoen etorria handia den guztietan, bai eta ikastetxeak diren kaleetan ere, ibilgailuek abiadura egokia eramanen dute eta behar diren neurriak hartuko dituzte.

Motozikleten zirkulazioa

34. art. 1. Motozikletek ezin izanen dute kategoria gehiagoko ibilgailuez osatutako bi lerroren artean zirkulatu, ez eta lerro baten eta espaloiaire artean ere.

2. Debehatua dute, halaber, alamera ematea, zakarki azeleratuz, ke-hodiak itxuraldatuta eta normalak ez diren beste inguruabarren bidez.

Zirkulatzeko baimen bereziak

35. art. Erregelamenduz baimendutakoak baino pisu eta tamaina handiagoko ibilgailuek ezin zirkulatuko dute herriko bide publikoetan udal-baimenik gabe.

Aitzineko puntuan adierazitako baimenak erabilpen bakarrerako edo aldi jakin baterako bakarrik izanen dira.

A n i m a l i a k

36. art. Bide publikoetan barna ondasun nahiz jende garraiorako baimendutako animaliak baizik ezin dira ibili. Zakurrak beti joanen dira espaloitik, lotuak eta mutur-uhala jarrita.

Eskola garraioa

37. art. Herri barnean eskola-garraiorako zerbitzuak egin ahal izateko, udal-baimena beharrezkoa da.

38. art. 1. Hiriko eskola-garraioa da, garraio diskrezional jarraitua, ibilgailu automobil publikoetan edo zerbitzu partikularrekoetan egina, abiapuntu edo helmuga ikastetxeak izanik, ibilgailuak udalerraren barnean tartekako geraldak egin edota ibiltzen bada.

2. Ibilgailura igo eta jaistea Udalak berariaz zehazturiko tokietan bakarrik egingen da.

Erabilera debekatuak bide publikoetan

39. art. 1. Oinezkoen ibiltoki erreserbatuetan eta galtzadetan, nola ibiltarientzat hala jolasean dabilzanentzat arriskurik ekar lezaketzen jolas eta dibertsioak, debekatuak daude.

2. Patinak, patintxoak, monopatinak, bizikletak edo haurren trizikloak eta antzekoak, motoredunak izan ala ez, espaloi, nasa eta pasealekuetan erabiltzen ahalko dira, beti ere abiadura oinezkoarenera egokitzen baldin bada. Ordenantza honen 9. artikuluan ezarritako arauei men egingen diete.

P r o z e d u r a

40. art. Ordenantza honetan eta, oro har, Trafikoari, Motoredun Ibilgailuei eta Bide Segurtasunari buruzko Legean ezarritako arauak haustea alkateak zehatuko du isunen bidez Udalaren eskumeneren barrenean. Isunen zenbatekoak ordenantza honen 1. eraskineko isun-taulan azaltzen dira.

41. art. Espediente zehatzaileetan emandako ebazpenek administrazio-bideari amaiera emanen diote eta horien aurka administrazioarekiko helegitea paratzen ahal da bi hilabeteko epean Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko sailean, edo, nahi baldin bada, gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, zehapenaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.